

Gorrito-istiluen aurrean jarduteko protokolo bat duen lehen euskal hiriburua da Donostia

Tresna honen helburua da diskriminazio edo indarkeria arrazista eta xenofoboaren eta ijitoen edo LGTBI+ pertsonen kontrakoan aurrean ematen den erantzun instituzionala indartzea

Donostiako Udalak gertakari arrazista, xenofobo eta ijitoen eta LGTBI+ pertsonen kontrakoan aurrean jarduteko protokoloa aurkeztu du gaur. Tresna horren bidez, gorritoak eragindako diskriminazio- edo indarkeria-egoeretan ematen den erantzun instituzionala indartu nahi da.

Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburu batean onesten den ezaugarri horietako lehen protokoloa da, eta, beraz, Donostia hiri aitzindarietako bat da horrelako gertakari prebentzioaren eta koordinazioaren ikuspegitik heltzeko mekanismo instituzional espezifikoak ezartzen.

Sorginlore Elkarteak egin du protokoloa 2025. urtean, kontsulta-prozesu baten bidez. Prozesu horretan, udaleko osoko bilkurako alderdi guztietako ordezkari politikoek, inplikaturako udal-arloetako teknikariek eta hiriko gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko profesionalak eta aktibistek parte hartu dute.

Iñigo García Villanueva Aniztasuneko eta Inklusioeko zinegotziak nabarmendu du oso garrantzitsua dela diskriminazio-jarrerari aurre egiteko tresna argiak izatea: "Protokolo hau pauso garrantzitsu bat da erakundeek gorrito-istiluetan ematen duten erantzuna hobetzeko. Donostia hiri plurala eta irekia da, eta Udalak elkarbizitza babesteko eta edonor hemen seguru eta errespetuz bizi ahal izango dela bermatzeko erantzukizuna du".

Dokumentuak hainbat udal-zerbitzu inplikatzeko dituzten jarduketa-prozedurak ezartzen ditu, eta gizarte-erakundeekin eta baliabide espezializatuekin koordinatuta lan egitea sustatzen du, gorrito-gertakari posibleak prebenitzeko, detektatzeko eta horietan esku hartzeko, bai eta eragindako pertsonen laguntza eskaintzeko ere.

Berritasun gisa, erantzun instituzional bat jasotzen du, epai judizialen mende egongo ez dena eta gorrito-zantzuaren aurrean aktibatuko dena; eremu digitala txertatzen du; intzidentek salatzen edo komunikatzeko sarbide-kanalak zabaltzen ditu, eta justizia errestauratiboaren aldeko apustua egiten du, kasu arinetan. Gainera, Udalak agente aktibo gisa duen zeregina indartzen du, gertakari horien aurrean adierazpen publikoak eta ekintza komunitarioak egitea barne.

Protokoloak hiru jarduerari nagusi ditu: prebentzioa, prestakuntzaren,

Prentsa oharra

Nota de prensa

sentsibilizazioaren eta kanpainen bidez; esku-hartzea, faseka egituratutako prozedura bati jarraituko diona eta udalaren, poliziaren eta gizarte-zerbitzuen arteko koordinazioarekin gauzatuko dena; eta erreparazioa, biktimari arreta indibiduala ematera eta bizikidetzakomunitarioa berreskuratuzera bideratua.

Oro har, ikuspegi-aldaketa bat dakar: delituan soilik oinarritutako erantzuna eman beharrean, gorrotoa fenomeno sozial gisa jorratzen duen estrategia zabalago batean oinarritzen da, biktimen babesa eta gizarte-kohesioa lehenesten dituen.

Protokoloa, gainera, dokumentu bizia izango da, eta aplikatu ahala berrikusi eta egokitu daiteke. Ildo horretan, lehen bertsio honen helburua ez da behin betiko erantzunak ematea, baizik eta prozesu progresibo bati ekitea, jarrera diskriminatzaileei ematen zaien erantzun instituzionala hobetzeko.

García Villanuevaren hitzetan, «protokolo hau abiapuntu bat da. Gure helburua da esperientziarekin, gizarte-erakundeen lankidetzarekin eta udal-zerbitzuen inplikazioarekin hobetzen jarraitzea».

Ekimen honekin, Udalak indartu egingo du giza eskubideen defentsarekin eta errespetuan, aniztasunean eta bizikidetzan oinarritutako hiri bat eraikitzearekin duen konpromisoa.

Gorroto-delituei buruzko datuak Euskadin

EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Unesco Katedrak egindako Euskadiko gorroto-istiluei buruzko azken txostenaren arabera (2024), istilu ugariak arrazakeriarekin eta xenofobiarekin lotuta daude, guztira bi heren inguru.

Bigarrenik, sexu-orientazioak eta/edo genero-identitateak eragindakoak daude.

Ertzaintzak EAEn erregistratutako 236 gorroto-delituetatik 35 Donostiari dagozkio (delitu guztien % 15). Gipuzkoan, delitu horien pisua % 41 da. Portzentaje hori, neurri batean, hiri-dinamikarekin berarekin lotutako faktoreen ondorio da, hala nola: biztanleriaren kontzentrazioa, espazio publikoaren erabileraren intentsitatea eta pertsonen joan-etorri handia. Aldagai horiek, txostenaren arabera, era horretako gertakarien intzidentzia handiagoarekin lotuta daude.

Datu horiek indartu egiten dute tresna espezifikoaren beharra, hala nola aurkeztutako protokoloarena, esku hartzea ez ezik, biktimen eta komunitateen gaineko eragina prebenitzera eta konpontzera ere bideratuta baitaude.

Prentsa oharra

Nota de prensa

Jardunaldia: "Nola erantzuten diogu gorrotoari: jardunbide arrakastatsuak, gorrotoa kudeatzeko eta erreparazioa emateko"

Testuinguru horretan, datorren maiatzaren 8an, Aieteko jauregian *Nola erantzuten diogu gorrotoari: jardunbide arrakastatsuak, gorrotoa kudeatzeko eta konpontzeko* jardunaldia egingo da. Topaketa horretan, gorroto-delitu arrazistei, xenofoboei, ijitoen edo LGTBI+ pertsonen kontrakoei aurre egiten adituak diren pertsonak izango dira.

Jardunaldia, gainera, udal-protokoloa jendaurrean aurkezteko gunea izango da, eta aukera emango du Euskal Autonomia Erkidegoan, Madrilen eta Bartzelonan gorroto-delituen prebentzioan eta biktimei eta komunitateari emandako arretan eta erreparazioan eragin nabarmena dutela erakusten ari diren esperientziak ezagutzeko.

Íñigo García Villanueva zinegotziak inauguratuko du ekitaldia. Haren esanetan, "Topaketa hau beste pauso bat gehiago da Donostiako Udalak gorroto-istiluei eta -delituei aurre egiteko duen jarreran. Istilu eta delitu horiek diskriminazioa eta mina eragiten diete halakoek jasaten dituzten pertsoneri, eta, gainera, zuzenean eragiten diete segurtasunari eta bizikidetzari. Pertsonen eta ijito-herriaren, LGTBI+ komunitatearen eta halako kolektiboen duintasunaren aurkako eraso horiek geldiarazteko tresna eta programa eraginkorrenak partekatu eta ezagutu nahi ditugu, inor ez dadin bakarrik sentitu gorrotoaren aurrean".

Esparru-ponentziak Gorroto-delituak Euskadin: diagnostikoa eta etorkizuneko erronkak jorratuko du, Zigor Zuzenbideko irakasle eta EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Unesco Katedrako kide Enara Garroren eskutik.

Bestalde, Sorginlore Gizarte Elkarteko ordezkari Zaira García Dafontek berriki onetsitako protokoloaren edukia aurkeztuko du.

Berdintasuneko, Ekonomiako eta Tokiko Enpleguko zinegotzi Ane Oyarbide Ochoak dinamizatuko du praktika arrakastatsuen mahai-ingurua, eta honako hauek hartuko dute parte:

- David Martín Abánades, Fuenlabradako Udaltzaingo Zerbitzuko ikuskatzaile burua, aniztasunaren polizia-kudeaketan aditua. CLARA proiektua aurkeztuko du.
- Montse Berdún, Bartzelonako Udaleko Diskriminazioaren aurkako Bulegoaren koordinatzailea.
- Roberto Moreno Álvarez, Arartekoaren Justizia arloko arduraduna. *Victory* justizia erreparatiboaren proiektua azalduko du.
- Diógenes Sabana, Eusko Jaurlaritzako Berean Tratu Berdintasunerako eta Diskriminaziorik Ezerako Euskal Zerbitzuaren zuzendaria.

Prensa oharra

Nota de prensa



Izena ematea doan da, eta giza_eskubideak@donostia.eus helbide elektronikoaren bidez egin ahal izango da, maiatzaren 6ra arte.